

Janzkerak badu garrantzirik

Sekuentzia honetan diseinuaz eta janzkeraz jardungo dugu. Ataza hauek egingo dituzu:

Nolakoa zara moda eta janzkera kontuetan?

Bideoa entzunda, elkarrizketaren galderak dagokien erantzunean kokatu.

Bideoa berriro entzun eta erantzunak identifikatu.

Baldintza hipotetikoak praktikan jartzeko, testuetako hutsuneak bete.



Nolakoa zara janzkera kontuetan?

1. Zeure burua modaren jarraitzaile kontsideratzen duzu?

2. Zure eguneroko bizimoduan, zein motatako arropa janzteia gustatzen zaizu? Aukeratu hitz hauetatik, zuri egokitzen zaizkizunak:

-
- Jantzi eroso eta informala gustatzen zait, erraz janzten dena.
- Jantzi minimalista gustatzen zait, baina estiloa duena.
- Uf, nik lanerako adibidez, jantzi dotorea janzten dut, eta kolore bizikoa.
- Niri janzkera modernoa gustatzen zait, eta asko begiratzen diot markari.

Besterik?.....

3. Modaz hitz egitean, batzuentzat marka oso garrantzitsua da. Zuk hauetako zein marka ezagutzen dituzu: Minimil, Maximo Dutti, Adolfo Dominguez, LeTitare, Loreak mendian..... Besterik? Eta zein markatako jantziak gustatzen zaizkizu gehien? Zergatik?

4. Hurrengo atazan entzungo duzun bideoan, LeTitare markako diseinatzaile euskaldun bati elkarrizketa egingo diote. Hauetatik zein galdera egingo diotela uste duzu? Markatu, zure erantzunak.

- TITAREren estiloaren berezitasunak zein dira?
- Euskal diseinurik ba al dago?
- Noiz hasi zinen diseinuaren esparruan lan egiten?
- Moda eta euskara bateragarriak al dira?

Zein galderari ari da erantzuten?

Bideo honetan, Irati izeneko euskal diseinatzaile bati elkarrizketa egin diote. Bertan bere iritzia emango du moda eta diseinuari buruz. Erreparatu egin dizkioten galderetan, ea lehen egin dituzun aurreikuspenetan asmatu duzun.

Lehendabizi, irakurri beheko galderak eta erantzunak. Ondoren, bideoa entzun bitartean (00:28/ 03:44) galderei erantzun.



<https://youtu.be/wytM7usuve>

Erraza al da diseinatzaile batek bere tokia egitea?

TITAREren estiloaren berezitasunak zein dira?

Iratiren ustez ba al da euskal diseinurik?

Moda eta euskara bateragarriak al dira?

Euskal Modaren klusterra sortu da: Basquemoda. Zer ekarriko du honek?

"Oihalaren mugimendua nabarmentzen saiatzen naiz".

"Nik egunero erabiltzen dut, azkenean erreminta bat besterik ez da".

"Agian, industria-sarea osatzea lortuko dugu"

"Oinak beti lurrean izanda, lor daiteke".

"Ez dut ikusten moda zehatzik Euskal Herrian".

Diseinua eta moda: erantzun zuzena aukeratu

Entzun berriro bideoa. Oraingoan arreta jarri Iratik ematen dituen erantzunetan. Beheko galderen erantzun zuzena aukeratu behar duzu.

Aholkua: Erantzuna aukeratu baino lehen, garrantzitsua da Iratiren erantzun osoa entzutea.

Diseinatzaile batentzat posible al da toki propio bat egitea?

- Ez da erraza, baina lan-ordu asko sartuta, lor daiteke.
- Diseinatzaile euskaldun batentzat ez da posible.
- Nahiz eta lan asko egin, ezinezkoa da.

TITARE moda-markaren berezitasun hauetako zein ez du aipatzen?

- Oihalari garrantzi handia ematen dio.
- Bere diseinua sinplea da eta, besteak beste, zeta erabiltzen du.
- Era guztietako materialak erabiltzen ditu.

Iratik uste du badela euskal estiloa?

- Bere ustez, euskal modak baditu berezitasun finko batzuk.
- Bai, zalantzarik gabe.
- Ez, bere ustez, ez dago euskal moda zehatzik.

Iratik euskara eta moda bateragarriak ikusten al ditu?

- Euskal Herrian moda gutxi ikusi dugu, eta zaila da hor euskara sartzea.
- Berak euskara egunero erabiltzen du lanean, baina jendeari oso arraro egiten zaio.
- Orain arte ez dira izan, baina berak bateragarriak ikusten ditu.

Zer dio Iratik Euskal modari buruz? Zer nahi du lortzea?

- Euskal moda lantzen duten diseinatzaile guztiak elkartzea.
- Kanpoko modatik ikastea.
- Euskal Herriko modaren industria

Baldintza hipotetikoa praktikan jarri

Elkarrizketaren amaieran, Iratiri kultur munduko zein pertsona ospetsu jantziko lukeen galdetu diotenean begira zer erantzun duen.

Honelakoetan baldintza hipotetikoak erabiltzen ditugu. Ataza honetan aditz hori praktikan jartzea egokituko zaizu.

Oraingoan, Iratiri beheko bi pertsona ospetsuak nola jantziko lituzkeen galdetu diote, eta hauek dira bere erantzunak. Baina, aditzak jartzea ahaztu zaio. Txerta itzazu dagokion aditza aukeratuta. Baldintza hipotetikoaren arau eta adibide gehiago ikasbileko orrialde honetan kontsulta ditzakezu.

Baldintza hipotetikoa: noiz eta nola erabili?

Aditz hau zerbait gertatzeko aukera dagoenean erabiltzen dugu, hau da, hipotesi bat egiten dugunean. Hau da egitura: KO/-GO (geroaldia) + aditz laguntzailea (hipotetikoa)-KE.

Ikus adibideak: *Ni diseinatzaile BANintz, arropa eroso diseinatuko nuKE/ Diseinatzaile euskalduna BALitz, kanpora joan beharko luKE*

Nola osatzen da? Indikatibozko iraganeko laguntzaileetatik abiatu behar dugu: Esan nizuN= esango nizuKE / Eraman zenioN= eramaGO zenioKE / Jantzi zioN= jantziKO lioKE

Zertarako erabiltzen dugu? Oro har hipotesiak egiteko edota etorkizunean ditugun asmoak eta desioak adierazteko. Eta horrelakoetan, ondorioa bakarrik erabiltzen dugu. Erreparatu adibideetan: (Gustura) joanGO nintzateKE Karibera / Nik horri zaplasteko ederra emanGO nioKE



1) Nik norbait jantzi _____, kirolari bat _____, adibidez: Edurne Pasaban. Ze, neska liraina eta altua da eta joko asko emango lidake. Hasteko, soineko beltz luzea _____, puntuzko jertse labur batekin, ze horrela bera erosoago _____. Ah, eta nola ez: oinetako irekiak eta baxuak _____. Eta osagarri bezala, lepoko zapi loredun bat _____; ah! eta eraztun handi moderno horietakoa. Uf, horrela jantzita, nik uste zoragarri _____.



2) Uf, ba, nik Euskal kulturako norbait jantzi _____, zalantzarik gabe, Iñaki Perurena jantziko nuke, gizon mardula da, baina oso interesgarria, bizar zoragarri horrekin. Nahiko altua denez, galtza bakero beltzak _____, eta alkandora zuri lisoa. Horrela, itxura informal bat _____, eta gainera, gizon itxurosoa _____. Horiekin batera, mokasin marroi batzuk _____. Horrela jantzita, nik uste gazte-itxura _____.

Erantzunak

Erraza al da diseinatzaile batek bere tokia egitea? ("Oinak beti lurrean izanda, lor daiteke".)

TITAREren estiloaren berezitasunak zein dira? ("Oihalaren mugimendua nabarmentzen saiatzen naiz".)

Iratiren ustez ba al da euskal diseinurik? ("Ez dut ikusten moda zehatzik Euskal Herrian".)

Moda eta euskara bateragarriak al dira? ("Nik egunero erabiltzen dut, azkenean erreminta bat besterik ez da".)

Euskal Modaren klusterra sortu da: Basquemoda. Zer ekarriko du honek? ("Agian, industria-sarea osatzea lortuko dugu")

Diseinatzaile batentzat posible al da toki propio bat egitea?

Ez da erraza, baina lan-ordu asko sartuta, lor daiteke.

TITARE moda-markaren berezitasun hauetako zein ez du aipatzen?

Era guztietako materialak erabiltzen ditu.

Iratik uste du badela euskal estiloa?

Ez, bere ustez, ez dago euskal moda zehatzik.

Iratik euskara eta moda bateragarriak ikusten al ditu?

Orain arte ez dira izan, baina berak bateragarriak ikusten ditu.

Zer dio Iratik Euskal modari buruz? Zer nahi du lortzea?

Euskal Herriko modaren industria zabaltzea eta elkarlana sortzea.

1) Nik norbait jantzi (beharko banu), kirolari bat (jantziko nuke), adibidez: Edurne Pasaban. Ze, neska liraina eta altua da eta joko asko emango lidake. Hasteko, soineko beltz luzea (jantziko nioke), puntuzko jertse labur batekin, ze horrela bera erosoago (egongo litzateke). Ah, eta nola ez: oinetako irekiak eta baxuak (jantziko nizkioke). Eta osagarri bezala, lepoko zapi loredun bat (jantziko nioke); ah! eta eraztun handi moderno horietakoa. Uf, horrela jantzita, nik uste zoragarri (egongo litzatekeela).

2) Uf, ba, nik Euskal kulturako norbait jantzi (beharko banu), zalantzarik gabe, Iñaki Perurena jantziko nuke, gizon mardula da, baina oso interesgarria, bizar zoragarri horrekin. Nahiko altua denez, galtza bakero beltzak (jantziko nizkioke), eta alkandora zuri lisoa. Horrela, itxura informal bat (emango nioke), eta gainera, gizon itxurosoa (egongo litzateke). Horiekin batera, mokasin marroi batzuk (jantziko nizkioke). Horrela jantzita, nik uste gazte-itxura (izango lukeela).

Transkripzioa

Esataria – Gaurkoan Ttlakarín ...

IRATI GUARRETXENA – Bueno, kaixo ni Irati naiz, Letitare markaren arduraduna.

Erraza al da diseinatzaile gazte batek bere lekua egitea?

I.G.- Bueno diseinatzaile gazte batek e ... bere lekua egitea azkenean berdin du non, nik uste dut Euskal Herrian edo kanpoan edo, beti zaila ... gauza zaila izaten da. E ... bakoitza bere lana pausoz pauso, bere kabuz egiten doan heinean, nik uste dut ba sortzen dela hor mugimendua bat eta bazoaztela hor nolabait ba leku baten edo besten finkatzen, ez? Baina bueno lan ... lanordu askoren ondoren eta burua beti ez dakit, oinak beti lurrean edukita eta lanordu asko sartzen, nik uste dut pixkanaka sortu daitekeela zerbait.

Letitare moda marka sortu duzu, nola definituko zenuke?

I.G.- E ... Letitaren estiloa, ... badauka zerikusia bueno batez ere oihalen ... oihalengatik eta badira material organiko naturalak, zeta den bezala, larrua, kotoiak eta pixka bat nahasketa berezi horiengatik desberdintzen da marka. Gero badira lineak eta nahiko sinpleak dira, mugimendua, oihalaren mugimendua nabarmentzen saiatzen naiz, baina orokorrean nahiko sinple ... figura sinplea sortzeko patrioiak dira, ez dela hola ... ez dira bolumen bereziak eta bueno, batez ere oihalari garrantzia ematen zaion diseinua...

Existitzen al da euskal estilurik?

I.G.- Bueno nik uste dut herrialde guztietan daudela e ... moda horiek ez? Beti oporretan goazenean, kanpora zoazenean, beti badakigu, bueno askotan identifikatzen ditugu oso azkar euskaldunak, horiek euskaldunak dira edo, baina bueno imajinatzen dut herrialde denetan pasatzen dela. Bestela ere ez dut ikusten hola moda zehatz bat Euskal Herrian; moda azkenean zerbait oso zabala da eta aukeraketa da, pertsonala da, azkenean kultura guztiek izango dute zerikusia edo influentzia bat bakoitza aukeraketa batean, baina nik ez dut ikusten euskal moda finkorik hola.

Moda eta euskara bateragarriak al dira?

I.G.- Bai euskara bateragarria iruditzen zait edozein elementurekin. Nik uste dut ez garela ohituak, alderantziz dela gehiago, igual Euskal Herrian moda gutxi ikusi izan dugula edo bueno ez? Ez dira, ez direla izan orain arte oso bateragarriak, baina bueno ez dut uste euskararengatik izango denik, nik egunero erabiltzen dudana zerbait da, azkenean erreminta bat, erreminta bat besterik ez da eta ez dut batere arraroa edo ... oso bateragarriak iruditzen zaizkit behintzat bai.

Euskal modaren Clusterra sortu berri da, Basquemoda. Zer ekarriko du horrek?

I.G.- Zer ekarriko duen ez dakit baina gustatuko litzaidake, ba ... hemengo industria, modaren inguruan sortzen den industria hau ba ... zabaltzea, elkar lan bat sortzea, ze oso zaila izaten da e ... bai hornitzaile (probedore) mailan, edo bueno gure artean dekadentzia asko daude eta beti kanpora begira edo jarri behar gara zerbait, ... irtenbideak edo bilatzeko ez? Euskal Herria mailan ba ez dago igual industria sarea, sarea osatu gabe dago, agian sare hori osatzerik badago ba askoz errazago izango litzateke, bertako produktua ere izatea lortuko genuke, gauza orain, orain arte behintzat ezinezkoa egiten zaiguna.

Kultur munduko norbait jantzi beharko bazenu?...

Nik uste dut abeslari batekin geratuko nintzatekeela, igual eszenatoki edo erakuts dezakezun lan batek joko gehiago ematen duelako edo, ez dakit, zerbait "kreatiboagoa" sortzeko aukera, bai.